



IKASLEAREN GIDA  
PENTSAMENDUA ETA HIZKUNTZA

IKASTURTEA:  
2016-2017

# TITULAZIOA: GRADUA PSIKOLOGIAN

ZENTRO: PSIKOLOGIA FAKULTATEA  
IKASTURTEA: 2016-2017

## IKASLEAREN GIDA

### 1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

#### IZENA: PENTSAMENDUA ETA HIZKUNTZA

KODEA: 25060

IKASTURTEA: 2016/2017

IRAKASGAI MOTA = O (D = adarreko oinarrizkoa; S = beste adar batzuetako oinarrizkoa; Y = gradu amaierako proiektua; O = nahitaezkoa edo P = hautazkoa)

ECTS Kredituak: 6

kurtsoa: 2.a

LAUHILEKOA: 2.a

Bete beharrekoak: Pentsamendua eta Hizkuntza prozesuetan parte hartzen duten oinarrizko prozesu psikologikoak ezagutu: Arreta, Pertzepzioa, Ikaskuntza, Oroimena, Motibazioa, Emozioa.

Gomendioak: Garapen kognitiboaren eta hizkuntzaren garapenaren prozesuak ezagutu.

### 2. IRAKASLE-TALDEAREN DATUAK

IZENA: Patricia Insúa

ZENTRO/SAILA: Psikologia Fakultatea/Oinarrizko Prozesu Psikologikoak

ALORRA: Oinarrizko Psikologia

BULEGOA: P3D5

e-posta: patricia.insua@ehu.eus

TLF: 943-015735

URL WEB:

IZENA: Aitziber Pascual

ZENTRO/SAILA: Psikologia Fakultatea/Oinarrizko Prozesu Psikologikoak

ALORRA: Oinarrizko Psikologia

BULEGOA: P3D6

e-posta: aitziber.pascual@ehu.eus

TLF: 943-015658

URL WEB:

IZENA: Susana Conejero

ZENTRO/SAILA: Psikologia Fakultatea/Oinarrizko Prozesu Psikologikoak

ALORRA: Oinarrizko Psikologia

BULEGOA: P3D15

e-posta: susana.conejero@ehu.eus

TLF: 943-015742

URL WEB:

### 3. IRAKASGAIAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Irakasgaiaren gaitasun espezifikoak
1	Pentsamendua eta Hizkuntzaren funtzionamendua azaltzen duten oinarriko erregelak ezagutu.
2	Pentsamendua eta Hizkuntzaren prozesuak azaltzen saiatzen diren eredu teorikoak, beren ezaugarriak, ezberdintasunak eta mugak, ezagutu, testu ezberdinak aztertuz, laburtuz, aurkeztuz eta horiei buruz eztabaidatuz.
3	Pentsamenduaren funtzionamendua eta honek eguneroko bizitzan dituen efektuak aztertu.
4	Diskurtsoaren analisi kritiko bat egiteko gai izan, pentsamendua eta hizkuntza gauzatzen diren testuingurua kontuan izanda.
5	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak egoki erabiltzeko eta irakasgaiaren edukietan aplikatzeko gai izan.
	<b>Zeharkako gaitasunak</b>
1	Informazio eta dokumentazio iturrietan oinarrituz, Psikologiarekin zerikusia duen informazioa era kritiko batean bilatzeko, kudeatzeko, aztertzeko eta laburtzeko gai izan.
2	Era eranginkor batean erlazionatzeko, komunikatzeko eta erabakiak hartzeko eta bai indibidualki bai taldean lan egiteko gai izan.
3	Ikaslea ikaskuntza autonomo batean gaitu egingo duten trebetasunak eskuratu.

### 4. PROGRAMA

#### 4.1. KLASE MAGISTRALETAN GARATUTAKO PROGRAMA TEORIKOA

1. GAIA: Pentsamenduaren eta Hizkuntzaren azterketa. Mugaketa kontzeptuala

1.1. Pentsamenduaren eta Hizkuntzaren arteko erlazioak

1.2. Pentsamendu eta Hizkuntza prozesuen ikerketa metodologia

2. GAIA: Arrazonamenduaren Psikologia

2.1. Arrazonamenduaren Psikologian dauden ikerketa eremuak

## 2.2. Giza arrazonamenduaren ikerketan dauden ikuspuntu teorikoak

### 3. GAIA: Arrazonamendua

#### 3.1. Arrazonamendu deduktiboa

#### 3.2. Arrazonamendu induktiboa

### 4. GAIA: Problemen soluzioa

#### 4.1. Gestalt eskola eta problemen soluzioa

#### 4.2. Informazio Prozesaketaren Teoria eta problemen soluzioa

#### 4.3. Arrazonamendu informala

### 5. GAIA: Hizkuntzaren kontzeptua

#### 5.1. Hizkuntzaren analisi- dimentsioak: egiturazkoa, funtzionala eta jokabidezkoa

#### 5.2. Prozesu Psikologikoak hizkuntzaren erabileran

### 6. GAIA: Hizkuntza ulertzea

#### 6.1. Hitzak ezagutzea eta ulertzea

#### 6.2. Perpausak ulertzea

#### 6.3. Diskurtsoa ulertzea

### 7. GAIA: Hizkuntza sortzea

#### 7.1. Mezuaren planifikazio kontzeptuala

#### 7.2. Mezuaren kodifikazio linguistikoa

#### 7.3. Formulatzaileren arkitektura

## 4.2. GELAKO PRAKTIKETAN ETA TAILERRETAN GARATUTAKO PROGRAMA (\*)

Irakaskuntza modalitate hauen helburu orokorra klase magistraletako programa teorikoan ematen diren zenbait gai eta beren aplikazio praktikoaren artean sakontzea da. Era berean, gelako praktketan eta tailerretan egindako lanaren bidez pentsamendua eta hizkuntzari buruzko egungo gaietan sakontzea bilatzen da. Gai hauek, pentsamenduaren kasuan, adibidez, arrazonamenduaren gain gailentzen den paradigma deduktiboa baino haratago doaz. Aldi berean, gai hauek pentsamendua eta hizkuntza jendearen zerbitzura bezala ikusten diren ikuspuntu batetik lantzen dira.

3 gai eremu zabal egituratu dira. Gai eremu bakoitza 8 orduetan zehar landuko da bi orduetako 4 klasetan:

### **1. Gure pentsamenduaren sistemak eta mugak**

Praktika honetan ikasleek liburu hauetatik ateratako testuak landuko dituzte:

- 1) Gigerenzer, G. (2008). *Decisiones instintivas. La inteligencia del inconsciente*. Bartzelona: Ariel.
- 2) Kahneman, D. (2012). *Pensar rápido, pensar despacio*. Bartzelona: Debate.
- 3) Taleb, N. N. (2013). *El cisne negro. El impacto de lo altamente improbable*. Bartzelona: Paidós Ibérica.

*Praktika hau hurrengo helburuekin planteatzen da:*

- A) Pentsamenduaren Psikologian kontsideratutako bi pentsamendu sistemak ezagutzea: *1 Sistema*, automatikoa, intuitiboa, ia esfortzurik eskatzen ez duena, eta *2 Sistema*, kontrolatua eta esfortzua eskatzen duena.
- B) Gure pentsamenduaren zenbait muga ezagutzea: probabilitate gutxiko gertaerek duten efektua, gure ezjakintasuna onartzeko zailtasuna eta munduaren ziurgabetasuna, konfirmazioa sesgoa eta falazia narratiboa.
- C) Pentsamendu sistemai buruzko, gure eguneroko bizitzan pentsatzen dugun moduari buruzko eta gure pentsamenduaren mugei buruzko ondorioak ateratzea.

*Gai eremu honetan gaitasunak lortzeko egitekoak:*

- a) Teoriari buruzko irakurketa eta testu analisia. Aztertutako testuei buruzko txostenen elaborazioa. Lan praktikoko baten aurkezpen publikoa (1, 2, 3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).
- b) Sakontze tailerrak, metodologia aktiboa erabiliz (3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).

## **2. Pentsamendu (inkontzientea) adimenaren eta ongizatearen zerbitzura**

Praktika honetan ikasleek liburu hauetatik ateratako testuak landuko dituzte:

- 1) Gigerenzer, G. (2008). *Decisiones instintivas. La inteligencia del inconsciente*. Bartzelona: Ariel.
- 2) Kahneman, D. (2012). *Pensar rápido, pensar despacio*. Bartzelona: Debate.

*Praktika hau hurrengo helburuekin planteatzen da:*

- A) Gigerenzer-en Sistema 1 edo intuizioaren ikuspegian, intuizioa erabaki adimentsuagoekin (eta, era berean, askotan gure eta inguratzen gaituzten ongizatea handitzen duten erabakiekin) erlazionatzen dela defendatzen duen ikuspegian, sakondu.
- B) Kahneman-en “Bi nien” arteko ezberdintasuna eta harremana ezagutu: esperimendatu duen nia eta gogoratu duen nia.
- C) Gure pentsamendua gure ongizatearekin erlazionatzeko moduari buruzko ondorioak atera.

*Gai eremu honetan gaitasunak lortzeko egitekoak:*

- a) Testuen irakurketa eta analisia. Aztertutako testuei buruzko txostenen elaborazioa. Lan praktikoko baten aurkezpen publikoa (1, 2, 3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).
- c) Sakontze tailerrak, metodologia aktiboa erabiliz (3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).

## **3. Diskurtsoaren analisi kritikoa eta genero ikuspegia**

Praktika honetan ikasleak ondorengo testuak landuko ditu:

- 1) van Dijk, T. A. (2000). El estudio del discurso. T. A. van Dijk-en (Konp.), *El Discurso como estructura y proceso* (pp. 21-65). Bartzelona: Gedisa.
- 2) van Dijk, T. A. (2000). El discurso como interacción en la sociedad.

T. A. van Dijk-en (Konp.), *El discurso como interacción social* (pp. 19-66). Bartzelona: Gedisa.

- 3) Antaki, C., Billig, M., Edwards, D. eta Potter, J. (2003). El análisis del discurso implica analizar: Crítica de seis atajos analíticos. *Athenea Digital*, 3, 14-35.
- 4) West, C., Lazar, M. M. eta Kramarae, C. (2000). El género en el discurso. T. A. van Dijk-en (Konp.), *El discurso como interacción social* (pp. 179-212). Bartzelona: Gedisa.

*Praktika hau hurrengo helburuekin planteatzen da:*

- A) Diskurtsoaren Analisi Kritikoak ikertzen dituen kontzeptu garrantzitsuenak eta diziplina berri honen aintzindari teorikoak ezagutu.
- B) Diskurtsoa era kritiko batean aztertzea, generoaren ikuspuntutik.
- C) Norberaren diskurtsoaren ikuspuntu kritikoa, generoari dagokionez, azaldu, testu bat (hautatu beharrekoa) aztertuz.

*Gai eremu honetan gaitasunak lortzeko egitekoak:*

- a) Teoriari buruzko testu originalak irakurri eta aztertu. Aztertutako testuei buruzko txostenen elaborazioa. Testu baten hautaketa eta horren analisi kritikoa, genero ikuspuntutik. Lan praktikoaren aurkezpen publikoa (1, 2, 3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).
- b) Sakontze eta eztabaidatze gidatutako tailerrak. Testu bat era kritikoan aztertuko da genero ikuspuntutik (3, 4 eta 5 Gaitasunak) (1, 2 eta 3 Zeharkako gaitasunak).

(\*) Komenigarria litzateke jarduera bakoitzarekin zein gaitasun garatzen den zehaztea, bai eta gaitasunaren zenbakia ere.

## 5.-IRAKASGAIAREN PLANGINTZAKO KRONOGRAMA

Astea	Datak	KM (34 ordu)	GP (14 ordu)	TA (12 ordu)	Ordu ez presentz.	Entregatu beharrekoa	Guztira
1	01/30-02/03	KM =3					3
2	02/06-02/10	KM =3	GP1=2 GP2=2 GP3=2		5		10
3	02/13-02/17	KM =3	GP1=2 GP2=2 GP3=2		5	X	10
4	02/20-02/24	KM =3	GP1=2 GP2=2 GP3=2		5	X	10
5	02/27-03/03	KM =3	GP1=2 GP2=2 GP3=2		5	X	10
6	03/06-03/10	KM =3	GP1=2 GP2=2 GP3=2		5	X	10
7	03/13-03/17	KM =3	GP1=2 GP2=2 GP3=2		5	X	10
8	03/20-03/24	KM =3	GP1=2 GP2=2 GP3=2		5	X	10
9	03/27-03/31	KM =3		TA1=2 TA2=2 TA3=2	5	X	10
10	04/03-04/07	KM =3		TA1=2 TA2=2 TA3=2	5	X	10
11	04/10-04/14			TA1=2 TA2=2 TA3=2	0	X	2
12	04/17-04/21				0		
13	04/24-04/28	KM =3		TA1=2 TA2=2 TA3=2	5	X	10
14	05/01-05/05	KM =1		TA1=2 TA2=2 TA3=2	5	X	8
15	05/08-05/12			TA1=2 TA2=2 TA3=2	5	X	7
16	05/15-05/19						
<b>Guztira</b>		<b>KM =34 or.</b>	<b>GP=14 or.</b>	<b>TA=12 or.</b>	<b>60 or.</b>	<b>3</b>	<b>120 or.</b>



## 6. EBALUAZIO-SISTEMA

Irakasgaiaren ebaluazio sistemak bi modalitate ditu:

**A MODALITATEA) EBALUAZIOAREN SISTEMA MISTOA:** Ebaluzio finala (%70a test motako azterketa baten bidez ezagutzak eskuratzearekin erlazionatutako gaitasunak ebaluatzeko) eta Ebaluzio jarraia (%30a gelako praktiken eta tailerren bidez).

Test motako azterketa aukera anitzekoa izango da, 4 erantzun aukerekin eta erantzun oker bakoitzeko penalizazioa jasoko da  $(O - E) / (n-1)$  formularen oinarrituz. Adierazitako moduan, azterketak nota finalaren %70a balioko du.

### *Gelako praktiken eta Tailerren ebaluazio jarraia*

Lehenik eta behin, lehenengo sesioan, taldeak osatuko dira (talde bakoitza 4 ikaslez osatua egongo da) eta talde bakoitzak sakonduko duen gai eremua aukeratuko du (gai eremu bakoitza hiru-lau talde ezberdinek sakonduko dute). Edonola ere, talde guztiek 3 gai eremuak era jarraian landuko dituzte.

Ikasle bakoitzak konpromezua hartuko du irakasleak esaten dizkion irakurketak eta lanak egiteko.

**Alde batetik**, sesio bakoitzaren ondoren talde bakoitzak **akta bat** entregatu beharko du. Akta horretan egindako irakurketen sintesia jaso beharko da. Sesio bakoitzerako, talde bakoitzeko 3 pertsonak irakurketa bat irakurrita eraman beharko dute (ezberdina kasu bakoitzean). Pertsona horietako bakoitzak taldeko beste hiru kideei irakurritakoa era argi eta ordenatuan azaldu beharko die. Bestalde, laugarren pertsonak bere taldekideen irakurketak irakurrita eraman beharko ditu eta, aldi berean, bozeramaile papera izango du. Azken honek jasoko du akta eta hau izango da ebaluaziorako erabiliko dena. Taldekide guztiek bozeramailea izan beharko dute gutxienez behin. Guztira, talde bakoitzak 9 akta entregatu beharko ditu (akta bat sesio bakoitzeko). Atal honetan atera ahal izango den **nota maximoa 1,5** izango da eta talde guztiek **gutxienez 0,75** atera beharko dute atal praktikoa gainditzeko.

**Beste aldetik**, talde bakoitzak **lan espezifiko** bat egin beharko du gai eremu bati buruz (3 gai eremu daude guztira). Lan hauek **azkeneko 3 astetan** aurkeztuko dira, **power-point** baten laguntzaz. Lanaren aurkezpenak gehienez 15 minutu iraun beharko ditu; horren ondoren, talde guztiak (GP guztiak) egingo du lanaren eztabaida (30-40 minutu). Lan honetan gehien baloratuko dena lanaren izaera erreflexiboa izango da. Hau da, taldeak bere lanean landutako gaia irakasgaiarekin erlazionatu beharko du. Aipatutakoaz gain, lan hau ebaluatzeko orduan irakasleak ondorengoak ere hartuko ditu kontuan: lanaren eta aurkezpenaren kalitatea, sintesi gaitasuna, aurkezpenean klasea dinamizatzeko gaitasuna, aurkezpenean taldearen parte-hartzea eta eztabaidan planteatutako galderei erantzuteko gaitasuna. Era berean, gaitasunen garapena bilatzen den heinean, ikasleen parte hartze aktikoa baloratuko da. Atal honetan atera ahal izango den **nota maximoa 1,5** izango da eta talde guztiek **gutxienez 0,75** atera

beharko dute atal praktikoa gainditzeko.

**Laburbilduz**, praktiken (gelako praktiken eta tailerren) nota orokorra era honetan banatuko da:

a) Taldeko lanaren aurkezpena: Gehienez 1,5 puntu. Gainditzeko beharrezko puntuazioa: 0,75 (1,5etik).

b) Aktak, sesio bakoitzaren ostean entregatu beharko direnak: Gehienez 1,5 puntu. Gainditzeko beharrezko puntuazioa: 0,75 (1,5etik).

**Praktikak gainditzeko, gutxienez, 1,5 atera behar izango da.**

Ikasleren batek ebaluzio jarraia gaindituko ez balu, B modalitatean egingo den azterketa baliokidera (oraintxe azalduko da) aurkeztu beharko da.

### **B MODALITATEA) EBALUAZIO FINALA:**

**Test motako azterketa** baten bidez **klase magistraletan** landutako ezagutzak eskuratzearekin erlacionatutako gaitasunak ebaluatzeko (%70a) eta **3 gai eremuei** buruzko **idatzizko azterketa** baten bidez, gelako praktiketan eta tailerretan landutako gaitasunak ebaluatzeko (%30a).

Azterketaren lehenengo parteak (test moduko azterketa, A modalitatean bezala) nota finalaren %70a suposatzen du. Parte hau gainditu beharko da irakasgaia gainditu ahal izateko.

Gelako praktikei eta tailerrei dagokien idatzizko azterketak nota finalaren %30a suposatzen du. Parte hau gainditu beharko da irakasgaia gainditu ahal izateko.

Beraz, bi azterketak gaindituak izan beharko dira irakasgaia gainditu ahal izateko.

**IRAKASGAI HONETAN NAHIKOA IZANGO DA TEST MODUKO AZTERKETARA EZ AURKEZTEAREKIN DEIALDIARI UKO EGITEKO.**

## **7. DOKUMENTAZIOA/BIBLIOGRAFIA**

### **OINARRIZKOA:**

Belinchón, M., Rivière, A. eta Igoa, J. M. (1998). *Psicología del lenguaje*. Madril: Trotta.

Carreiras, M. (1997). *Descubriendo y procesando el lenguaje*. Madril: Trotta.

Carretero, M. eta Asensio, M. (2004) *Psicología del Pensamiento*. Madril: Alianza.

- Cuetos, F., González, J. eta De Vega, M. (2015). *Psicología del lenguaje*. Madrid: Editorial Médica Panamericana.
- De Vega, M. eta Cuetos, F. (1999). *Psicolingüística del español*. Madrid: Trotta.
- Domínguez, A. (2002). *Lenguaje y psicología: conjugando forma y función*. La Laguna: Servicio de Publicaciones de la Universidad de La Laguna.
- Espino, O. G. (2004). *Pensamiento y razonamiento*. Madrid: Pirámide.
- Gabucio, F. (2005). *Psicología del pensamiento*. Bartzelona: UOC.
- Garnham, A. eta Oakhill, J. (1996). *Manual de psicología del pensamiento*. Bartzelona: Paidós.
- Gigerenzer, G. (2008). *Decisiones instintivas. La inteligencia del inconsciente*. Bartzelona: Ariel.
- González Labra, M. J. (1998). *Introducción a la psicología del pensamiento*. Madrid: Trotta.
- Harley, T. (2013). *Psicología del Lenguaje. De los datos a la teoría*. Madrid: McGraw Hill.
- Kahneman, D. (2012). *Pensar rápido, pensar despacio*. Bartzelona: Debate.
- Lopez-Higes, R. (2003). *Psicología del lenguaje*. Madrid: Pirámide.
- Saiz, C. (2002). *Pensamiento crítico: conceptos básicos y actividades prácticas*. Madrid: Pirámide.
- Santamaría, C. (1995). *Introducción al razonamiento humano*. Madrid: Alianza.
- van Dijk, T. A. (2000). *El Discurso como estructura y proceso*. Bartzelona: Gedisa.
- van Dijk, T. A. (2000). *El discurso como interacción social*. Bartzelona: Gedisa.

#### **OSAGARRIA:**

- Ayuso, M. (1997). *Razonamiento y racionalidad. ¿Somos lógicos?* Bartzelona: Paidós.
- Azpiazu, J. (2014). Análisis crítico del discurso con perspectiva feminista. I. Mendia, M. Luxán, M. Legarreta, G. Guzmán, I. Zirion eta J. Azpiazu-n (Ed.), *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista* (pp. 111-123).
- Berko, J. eta Bernstein, N. (1999). *Psicolingüística*. Madrid: McGraw Hill.
- Carretero, M. eta García-Madruga, J. A. (1990). *Lecturas de psicología del pensamiento*. Madrid: Alianza.
- Fernández, M. eta Anula, A. (1995). *Sintaxis y cognición. Introducción al conocimiento, el procesamiento y los déficit sintácticos*. Madrid: Síntesis.
- García Madruga, J. A., Carriedo, N. eta González Labra, M. J. (2000). *Mental models in reasoning*. Madrid: UNED.
- Gaskell, G. eta Altman, MG (Eds.) (2007). *The Oxford Handbook of Psycholinguistics*. Oxford: Oxford University Press.

Holyoak, K. eta Morrison, R. (Eds.) (2005) *The Cambridge Handbook of Thinking and Reasoning*. NY: Cambridge University Press

Holyoak, K. eta Morrison, R. (Eds.) (2012). *The Oxford Handbook of Thinking and Reasoning*. NY: Oxford University Press

Manktelow, K. (1999). *Reasoning and thinking*. East Sussex, UK: Psychology Press.

Newstead, S. eta Evans, J. S .B. T. (Eds.) (1995). *Perspectives on thinking and reasoning. Essays in honour of Peter Wason*. Hove, UK: LEA.

Santander, P. (2011). Por qué y cómo hacer análisis del discurso. Cinta de Moebio. Revista de Epistemología de Ciencias Sociales, 41, 207-224. [www.moebio.uchile.cl/41/santander.html](http://www.moebio.uchile.cl/41/santander.html).

Schaeken, W., De Vooght, G., Vandierendonck, A. eta d' Ydewalle, G. (2000). *Deductive reasoning and strategies*. Londres: LEA.

Spivey, M. J., McRae, K, eta Joanisse, M. F. (Eds.) (2012). *The Cambridge Handbook of Psycholinguistics*. NY: Cambridge University Press

van Dijk, T. A. (2015). Cincuenta años de estudios del discurso. Discurso y Sociedad, 9 (1-2), 15-32.

#### **Aldizkariak:**

*Brain and Language* (URL: <http://www.sciencedirect.com/>).

*Discourse and Society* (URL: <http://www.uk.sagepub.com/home.nav>).

*Discourse Processes* (URL: <http://www.tandf.co.uk/journals/titles/0163853X.asp>).

*Discurso y Sociedad* (URL: <http://www.dissoc.org/>).

*Language and Cognitive Processes* (URL: <http://www.tandf.co.uk/journals/pp/01690965.html>).

*Psicologica* (URL: <http://www.uv.es/revispsi/>).

*Thinking and Reasoning* (URL: <http://www.tandf.co.uk/journals/pp/13546783.html>).

#### **Datu baseak:**

PSICODOC

PsycLIT/PsycINFO

#### **BALIABIDEAK INTERNET-en:**

[http://psych.princeton.edu/psychology/research/johnson\\_laird/index.php](http://psych.princeton.edu/psychology/research/johnson_laird/index.php)

*Philip Johnson-Laird-en Web-a, Princeton University-n. Department of Psychology. Artikuluei estekak.*

<http://ntic.educacion.es/w3/eos/MaterialesEducativos/mem2003/logica/>

*Hezkuntza teknologien institutua. Logika ikasi.*

<http://pensamientocritico.edicionespiramide.es/restringido/principal.htm>

*Pirámide argitaratzea. Pensamiento crítico: actividades prácticas.*

<http://www.automind.cl/educacion/publicaciones/Entevista%20de%20Araya%20a%20Gigerenzer.pdf>

*Gerd Gigerenzer-ri elkarrizketa.*

<http://www.bcbl.eu/?lang=es>

*Basque Center of Cognition, Brain and Language.*

[http://www.mpg.de/149614/kognition\\_neuro?section=kf](http://www.mpg.de/149614/kognition_neuro?section=kf)

Max Planck Institute for Human Cognitive and Brain Sciences.

<http://www.mpg.de/152233/psycholinguistik?section=spw>

Max Planck Institute for Psycholinguistics.

[http://www.ted.com/talks/steven\\_pinker\\_on\\_language\\_and\\_thought.html](http://www.ted.com/talks/steven_pinker_on_language_and_thought.html)

Steve Pinker-ek hizkuntza eta pentsamenduari buruz hitz egiten du. Bideoa.

<http://www.princeton.edu/~kahneman/docs/DKahnemanCV.pdf>

Kanheman-en kurrikuluma.

<http://www.duke.edu/~pk10/language/psych.htm>

Duke University. Hizkuntzari buruz zenbait eztabaida.

## **8. TUTORETZA-ORDUTEGIAK**

Tutoretza ordutegia ezagutu ahal izango da GAUR-en bitartez.